Se admitirán únicamente aquellos gastos que se devenguen dentro de la temporada deportiva 2025-2026 indicada en este convenio, entendiéndose como temporada deportiva el periodo comprendido entre el 1 de septiembre de 2025 y el 31 de Agosto

denboralditzat.

Pertsonaleko gastuak.

Langileen gastuak honako hauen bidez egiaztatu ahal izango dira:

Nominak, edo nomina programatik lortzen den langileko urte osoko laburpena, biak sinatuta.

TC1 eta TC2
190 eredu

190 eredu aurkeztuz justifikatzen bada, dirulaguntza ikasturtekoa denez, dirulaguntzaren zuriaketa aurkezterakoan bereizi egin beharko da zein den 2025/09/01-2025/12/31 epeari dagokion gastua eta zein 2026/01/01-2026/08/31 epeari dagokiona. Epe bakoitzeko gastu totala zein den zehazteaz gainera, langile bakoitzaren epe horietako bakoitzeko gastua zein izan den zehaztu beharko da.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino (15.000 €), pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean aurkeztu behar dira. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira erabili diren irizpideak, memoria baten bidez.

Gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, dirulaguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

Bederatzigarrena:

Dirulaguntzaren

de 2026

Gastos de personal.

Los gastos de personal podrán acreditarse mediante:

Nóminas, o resumen anual por trabajador que se obtenga del programa de nómina, firmadas ambas.

TC1 y TC2.
Modelo 190

En caso de que se justifique mediante la presentación del modelo 190, dado que la subvención es de curso escolar, al presentar la justificación de la subvención deberá diferenciarse el gasto correspondiente al periodo 01/09/2025-31/12/2025 y el correspondiente al periodo 01/01/2026-31/08/2026. Además del especificar el gasto total de cada periodo, se deberá especificar el gasto de cada uno de los plazos de cada trabajador.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la legislación de contratos públicos para el contrato menor (15.000 €), la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención, extremos que deberán justificarse fehacientemente.

Las ofertas presentadas deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de subvención. Se deberán justificar expresamente en una memoria los criterios empleados para la selección de la oferta cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

En caso de que no se aportaran como mínimo tres ofertas de distintos proveedores o de que la elección hubiera recaído, sin adecuada justificación, en una que no fuera la más ventajosa económicamente, el órgano concedente podrá recabar una tasación pericial del bien o servicio, siendo de cuenta de la persona beneficiaria los gastos que se ocasionen. En tal caso, la subvención se calculará tomando como referencia el menor de los dos valores: el declarado por la persona beneficiaria o el resultante de la tasación.

Novena: Justificación de la subvención.

justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egingo da DLOren 30. artikuluan, DLOren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatu behar da «kontu erraztua» izeneko modalitatearen bidez, baldin eta dirulaguntzen zenbatekoa 60.000 eurokoa edo gutxiagokoa bada, eta kontu erraztuak jaso behar du, oro har, honako dokumentazio hau:

a) Jarduera-memoria (DKKE MEM inprimakia eta DKJB MEM inprimakia jarduera berezietarako) eta hauen balantze ekonomikoa (BAL-KI), dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko, non adieraziko diren zein jarduera egin diren.

b) Gastuen eta inbertsioen zerrenda, ataletan banatuta eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak, Tolosako Udalak emandako ereduaren moduan justifikatuko dena (GAS-KI inprimakia). Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, zein desbideratze izan diren adieraziko da.

c) Egonez gero, eskola kirolerako Ikastetxeekin sinatutako hitzarmen kopia. Klubak jardueraren balantzea aurkeztu beharko du (monitoreen ordainagiriak, jarritako materiala...) kasurako DKKE MEM inprimakian erantsitako eredu erabiliz.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.

f) Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.

Organo emaileak dirulaguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Dagokion deialdian, laguntza emateko erabakian edo hitzarmenean zehaztuko da zein den egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta:

La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención se realizará en los términos previstos en el artículo 30 de la LGS, su Reglamento y el artículo 28 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Organismos Públicos.

La justificación de la subvención, se realizará mediante la modalidad «cuenta simplificada» para subvenciones de importe inferior o igual 60.000 euros, que contendrá la siguiente información:

a) Una memoria de la actividad del club (impreso DKKE MEM e impreso DKJB MEM para las actividades singulares) y su balance económico (BAL-KI), que justifiquen el cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, y refleje las actividades realizadas.

b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe y las fechas de emisión y pago, que se justificará mediante modelo aprobado por el Ayuntamiento de Tolosa (formulario GAS-KI). En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

c) Si los hubiere, convenios de colaboración con centros escolares para el deporte escolar. Los clubs justificarán los gastos e ingresos de esta actividad (monitores, material aportado) rellenando el impreso preparado al efecto y adjuntado al formulario DKKE MEM.

d) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

f) Carta de pago del reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos.

El órgano concedente comprobará una muestra de justificantes de gasto que permita obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención. La muestra determinará el volumen de elementos a comprobar respetando los límites que a continuación se indican:

- Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 25 gainditzen duten egiaztagiri guztiak begiratuko dira.
- Gainerako egiaztagirietatik begiratuko da elementuen lagin bat, zeina gutxienez portzentaje hau den populazio osoaren elementu-kopuruarekiko
 - Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gutxiago badira: % 100.
 - Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogeit hamar edo hogeit baino gutxiago badira: % 70.
 - Egiaztagiriak hogeit baino gehiago eta berrogeit hamar edo berrogeit hamar baino gutxiago badira: % 40.
 - Egiaztagiriak berrogeit hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: % 30.
 - Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: % 20.

Gastu-frogagiriaren lagina osatzen duten gastuak behar bezala justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafikoko juridikoko balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak aurkeztu beharko dira eta horiek dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko, "Justifikazio kontua" artikuluan aipatzen den zerrendan (GAS-KI inprimakia) sartuta egon beharko dute. Agiri horiei erantsiko zaie gastua ordaindu izanaren dokumentazioa.

Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira hurrenez hurren ordenatuta zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera.

Hamargarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea beranduena ere, indarrean dagoen aurrekontuaren 2026ko irailaren 30 izango da.

Hamaikagarrena: Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, dirulaguntzaren % 60, beti ere, hitzarmena sinatu

- a) Se comprobarán todos los justificantes que superen individualmente el 25 % del importe de la subvención concedida.
- b) Del resto de los justificantes se comprobará una muestra de elementos que al menos suponga el siguiente porcentaje respecto del número de elementos del total:
 - Si el número de justificantes fuera inferior o igual a diez: 100 %.
 - Si el número de justificantes fuera superior a diez e inferior o igual a veinte: 70 %.
 - Si el número de justificantes fuera superior a veinte e inferior o igual a cincuenta: 40 %.
 - Si el número de justificantes fuera superior a cincuenta e inferior o igual a cien: 30 %.
 - Si el número de justificantes fuera superior a 100: 20 %.

Para la adecuada justificación de los gastos que constituyen la muestra de justificantes de gasto, deberán presentarse las facturas y demás documentos de valor o eficacia administrativa para el tráfico jurídico mercantil, que deberán estar incluidos en la Ordenanza General de Subvenciones, en la relación a que se refiere el artículo "Cuenta justificativa" (impreso GAS-KI). A dicha documentación se acompañará la documentación del pago del gasto.

Estos documentos originales se presentarán ordenados respectivamente por el número de orden asignado en la relación numerada.

Décima: Plazo de presentación de la justificación de las subvenciones.

El plazo para la justificación de la subvención, finalizará el 30 de septiembre de 2026.

Undécima: Procedimiento de pago.

La subvención se abonará en dos plazos; el

ondoren.

Organo eskudunak erabakitzen badu onuradunak aurrerakin gisa jasotako zenbatekoa, osorik edo zati batean, itzuli behar duela, itzuli beharreko zenbatekoari dagokion berandutze-interesa erantsiko zaiola. Horretarako, Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 41. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Halaber, organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpena eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan. Gainontzeko % 40a, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan, eta udal zerbitzuaren onespenezekin, ebazpena irmo egiten denean.

Bete beharreko baldintza izango da egunean egotea dirulaguntza jasotzeko betebeharretan.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinarazi behar zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Hamabigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

IRRISTAKA TALDEA elkarteak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzi berarekin.

IRRISTAKA TALDEA elkarteak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte, hezkuntza, kultura eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamahirugarrena: Euskeraren erabilpena.

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu — euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako

primero, siempre y cuando se firme el convenio.

Cuando el órgano competente acuerde la obligación del beneficiario de reintegrar total o parcialmente el importe percibido en concepto de anticipo, se incrementará el interés de demora correspondiente al importe a reintegrar. A estos efectos, será de aplicación lo previsto en el artículo 41 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.

Igualmente, junto con la notificación de la resolución del órgano competente y la aportación de los certificados de estar al corriente en los pagos de Hacienda y Seguridad Social, cuyo importe será equivalente al 60 % de la ayuda económica total. El 40 % restante se abonará tras la entrega de la documentación justificativa y obtenido el visto bueno del servicio municipal que haga firme la resolución.

Será requisito imprescindible estar al corriente de sus obligaciones en materia de subvenciones.

Los pagos serán comunicados a la BDNS antes de que finalice el mes natural siguiente al de su realización.

Duodécima: Publicidad de la actividad subvencionada.

El club IRRISTAKA TALDEA , deberá adoptar medidas de difusión del carácter público de la financiación de las actividades subvencionadas, adecuadas al objeto subvencionado, tanto en su forma como en su duración, como la inclusión de la imagen institucional del Ayuntamiento de Tolosa o leyendas relativas a su financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o la realización de menciones en medios de comunicación, y con análoga relevancia a la empleada respecto de otras fuentes de financiación.

IRRISTAKA TALDEA se compromete a asistir y participar en los distintos actos sociales, educativos, culturales y lúdicos que sean considerados necesarios y de interés por el Ayuntamiento de Tolosa.

Decimotercera: Uso del Euskera.

La entidad beneficiaria deberá redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales, con preferencia al euskera, los escritos, anuncios,

jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

Hamalaugarrena: Genero berdintasuna.

Ezin izango dute parte hartu eta ez dira pertsona edo entitate onuradun izango ondorengo hauek:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 1/2022 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 1/2022 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamabosgarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argitzea; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta kontu zuriketa adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak

notas y demás comunicaciones que publique en la actividad subvencionada, así como la publicidad, tanto oral como escrita. Asimismo, los mensajes emitidos por megafonía en actos concretos deberán transmitirse en euskera o en las dos lenguas oficiales. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse en el momento de la justificación de la realización de la actividad subvencionada.

Decimocuarta: Igualdad de género.

No podrán participar y estarán excluidas de la condición de personas o entidades beneficiarias:

- Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.
- Las personas físicas o jurídicas que empleen lenguaje sexual o sexista.
- Las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley 1/2022 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- Las entidades o empresas que incumplan las obligaciones establecidas en la Ley 1/2022 para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.
- Las asociaciones que en su proceso de admisión o en su funcionamiento discriminen por razón de sexo.

Decimoquinta: Comisión de seguimiento.

En el marco de este convenio, las partes convienen en constituir una comisión de seguimiento del presente Convenio, cuyas funciones serán velar por el cumplimiento del mismo, resolviendo las dudas que pudieran surgir, acordar la memoria y cuenta justificativa de la totalidad de las actividades subvencionadas y analizar el cumplimiento y grado de ejecución del convenio y proponer nuevas

izan daitezkeen lankidetzaren bide berriak proposatzea. Batzordea honela osatuko da: klubaren partetik, lehendakaria eta zuzendaritza taldeko kide bat, eta Udalaren partetik kirol saileko zerbitzuburua eta zinegotzi delegatua.

Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskarpen eta ziurtagiriak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

Hamaseigarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamazazpigarrena: Lan- eta zerga-legeria.

Diruz lagundutako entitateak, indarrean dagoen legedian ezarritakoa bete beharko du bere jardura gauzatzean, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratorritzen den guztiari dagokienez.

Hamazortzigarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hemeretzigarrena: Erantzukizunpeko adierazpena.

Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 10.11 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurrean, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hogeigarrena: Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003

posibilidades de colaboración en temas de interés común. La comisión estará compuesta por el o la presidente-a y una persona del equipo directivo por parte del club y por la responsable del servicio, y el concejal delegado del departamento de deportes por parte del Ayuntamiento.

El Ayuntamiento de Tolosa se reserva la facultad de realizar cuantas inspecciones y comprobaciones estime oportunas en orden a verificar el cumplimiento de los compromisos asumidos por la entidad subvencionada.

Decimosexta: Extinción.

El presente Convenio se extinguirá, en los casos previstos en el artículo 51 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Decimoseptima: Legislación laboral y fiscal.

La entidad subvencionada en el ejercicio de su actividad, deberá dar cumplimiento a lo establecido en la legislación vigente, especialmente en lo que se refiere al ámbito fiscal, relaciones laborales, Seguridad Social o cualesquiera que resulten de su aplicación.

Decimooctava: Naturaleza administrativa.

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se rige en consecuencia, además de por sus propias cláusulas, por la legislación aplicable en su caso.

Decimonovena: Declaración responsable.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 10.11 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Organismos Públicos, la acreditación de no incurrir en las prohibiciones para ser persona beneficiaria que se establecen en el artículo 13.2 de la LGS se realizará mediante declaración responsable ante notario o funcionaria o funcionario público.

Vigesima: Legislación supletoria.

En lo no regulado en el presente convenio, se estará a lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; en

Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hogeita batgarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitekeen guztian, beteko dutela.

Hogeita bigarrena: Dokumentuen kontsulta eta elkarreragingarritasuna.

39/2015 Legearen 28.artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.artikuluan eta 38/ 2003 Legearen 14.artikuluan ezarritakoari jarraiki, Tolosako Udalak informazioa kontsultatuko du zuzenean bere datu baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan, laguntza lortzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko behar diren datuak eta, bereziki, honako hauek: Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean izatea, eta enpresaren datuak.

Hogeita hirugarrena: Gardentasun ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, azaltzen den toki eta egunean, eta nik, idazkari naizen honek, fede ematen dut.

la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento que la desarrolla y en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Organismos Públicos.

Vigesimoprimera: Datos de carácter personal.

En cumplimiento de lo establecido en la normativa reguladora de los datos de carácter personal, ambas partes se comprometen a cumplir, en los términos que sean de aplicación, lo establecido en la legislación vigente.

Vigesimosegunda: Consulta de documentos e interoperabilidad.

De acuerdo con el artículo 28 de la Ley 39/2015, el artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 y el artículo 14 de la Ley 38/2003, el Ayuntamiento de Tolosa consultará directamente en las bases de datos del mismo Ayuntamiento y, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, a través del nodo de interoperabilidad NISAE en Hacienda Foral de Gipuzkoa y en la TGSS, la información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones para acceder a la ayuda, y en particular los siguientes datos: estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias en la Hacienda Foral y frente a la Seguridad Social y los datos de la empresa.

Vigesimosegunda: Portal de transparencia.

Se publicará el texto del presente convenio en el portal de la Transparencia y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Y en prueba de conformidad, ambas partes firman y ratifican el presente convenio, en el lugar y fecha indicados, de lo que yo, como secretaria, doy fe.

IRRISTAKA TALDEKO
LEHENDAKARIA
Iñaki Urkizar Zubelzu

ALKATEA
Angel Martinez de Rituerto Arregi

UDAL IDAZKARIA
Sara Berasategui Fuertes

